

SANTA AGEDA

SANTA AGEDAKOAK

Santi Ageda, (i)Ageda,
bier da Sante Ageda;
bier da Sante Ageda (i)eta
bere bezpera gaue da.

Santa martiri maitia
dago errukiz betia;
berak alkantzeu egin deigula
osasan eta bakia.

Santi hau preso sartu zanian
zan milagro bat, handia:
zeruetatik jatsi ekion
Jaungoikoaren argia.

Alkate jaunaz egon in garez
atzoko (i)arratsaldian;
libertadia emon in dosku
ibilitxeko bakian.

Ez bagabiltzaz bakian
geure lagunen kaltian,
alkate jaunak sartuko geituz
geur urtebeterartian.

Auzokoak garez, asauko ezkarez,
bakigu hemengo barrie,
zelan zezine bere in dozun da
txarrie bere handie.

Limosna bere hartu dogu ta
orain abia gaitian,
adiosik ez dogu usaten,
agur, ikusi artian.

Eeeuuuppp!!!

OLES TA OLES

Oles ta oles, oletan
nor dabil ordu honetan?
Bertsozaleok alkar hartuta
bartzarrak inkomodetan.

Nagosi jaunana hurrera
erreberentzi lurrera
lotsa garela etorri gara,
jauna, berorren aurrera.

Zeru altuan izarra
erreka artean lexarra
etxe honetako nagosi jaunak
urre gorritz dau bizarra.

Oles ta oles...

Etxe honetako andrea
hamar gonaren jaubea
hamarretarik hiru jantzita
dirudi erreginea.

Etxe honetako andrea
hamar gonaren jaubea
beste zazpirak jantzi ezkerro
ate beteko andrea.

Oles ta oles...

Bartzelonako astilleruen
barko barria dau eitxen
etxe honetako mutil gaztea
haraxe doa kapitxen.

Eder soloan garie
soinean gona gorrie
elastunetik pasa littike
damatxu zure garrie.

Oles ta oles...

Sante Agedantzat eskatu
tripe ez daitela betatu
Sante Ageda ez da izengo
klase horretan kontentu.

Emoten bozu emoizu
emotezpozu esaizu
beste batera joteko bere
belutxu egiten dasku.

Oles ta oles...